

Urrestildar, igeldoar eta itziartar herritar izenei buruzko irizpena.

Euskaltzaindiaren Hiztegian sartzeko

ZALDUA ETXABE, Luis Mari

Euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko kidea

0. Irizpenaren arrazoia

Miriam Urkia andereak, Euskaltzaindiaren Hiztegioko lantaldearen arduraduna denak, deizio horiek *Euskaltzaindiaren Hiztegian* sartzeko, *Urrestilla, Igeldo* eta *Itziar* biztanleria entitateetako herritar izenei buruzko irizpena eskatu zion 2021eko uztailaren 15ean eta 29an Roberto González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruari. Txosten labur hau aipatu eskariari erantzuteko saiakera da.

1. Aurrekariak

Herritar izenena auzi nabarra da. Horretaz jabetzeko kanpoko leku izenei dagozkien herritar izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko Euskaltzaindiak 2015eko abenduan karrikaturiko 178. arauan adierazten dena ikustea besterik ez dago:

Euskal Herriko leku-izenetan, tokian tokiko tradizioak finkatu ditu herritarren izenak, eta ez dago, beraz, alde zuretik jakiterik atzizkiaren zer aldaera dagokion leku-izen bakoitzari. Horregatik, hiztegiara edo arauetara jo behar da forma egokiaren bila. Euskaltzaindiak, Euskal Herriko udalerrri guztietako izenak arautzeaz batera, udalerrri bakoitzari dagokion herritar-izen ere arautu du, eta Hiztegi Batuan ere sistematikoki jaso dira guztiak.

Gehiago behar dutenentzat bihoa Akademiaren web-gunearen *Jagonet galde-erantzunak* ataleko «Jatorria adieraztea: *-ar, -tar, -dar, -oztar*» galde-erantzunean irakur daitekeen beste argibide hau:

Irizpenak eta txostenak

«... joera batzuk nagusi izan arren, ez dago lege zehatzik. Esaterako, Bizkaiko Uriberen mendebaldean *-oztar* erabiltzen da: berangoztar, dimoztar, sopeloztar eta abar. Orokorrean *-ar* amaiera dela nagusi esan genezake, nahiz eta XX. mendean asko zabaldu zen *-tar* atzikiaren erabilera.

Inguruko hizkuntzetan ere berdintsu gertatzen da; esaterako, gaztelaniaz Valencia eta Palencia oso antzekoak izan arren, hango herritarrek gentilizio desberdinak dituzte: valenCIANO/palenTINO.

Herrialde bakoitzeko herritarren herritar-izenak arau batean baino gehiagotan daude: esaterako, Zuberoakoenak 92. eta 99. arauetan, Lapurdikoenak 108. arauan, Bizkaikoenak 145. arauan, etab. Denak kontsultatu daitezke Euskal Onomastikaren Datutegian ([EODA]). Irizpide nagusiak ere emanak daude 178. arauan».

Beraz, udalerriaz azpiko biztanle entitate berezien (lekuen, elizateen, auzoen...) gentilizioak ez daude herrialdeetako arauetan bilduta.

2. *Urrestildar*

Azpeitiko *Urrestilla* biztanle entitate berezia 16. gizaldian azaltzen da estreinako idatzizko iturrietan (ikus Salaberri & Zaldúa, 2019, 102-103. or.). *Urrestildar* ([u.rú.ʃi̯.da.ràk]) herritar izena ahoz lekukotua dago (*ibid.*) eta ez da beste aldaerarik dokumentatzen, hau da, ez dago balizko **urrestillatar* zein **urrestillar* formen arrasto esanguratsurik.

Bestetik, Gipuzkoan badira *aretxabaletar/aretxabaldar* (*atxabaldar* laburtua) (*ibid.*, 65. or.), *errezildar* (*ibid.*, 169. or.) ([e.ré.ʃi̯.da.rà]), *idiazabaldar* (*ibid.*, 216. or.) gentilizioak. Adibide horiek erakusgarri batzuk baizik ez dira, sail luzeagoa ere ekar daiteke (ikus *Gipuzkoako herri izendegia* (140. araua), s.v. Aizarnazabal, Larraul, Usurbil, Zizurkil).

Goikoa, bere laburrean, aski eta sobera dateke hemen proposatu nahi nukeena proposatzearen: *Euskaltzaindiaren Hiztegian urrestildar* sartzea Urrestillako herritarak izendatzeko.

3. *Igeldoar*

Behinola *lekua* (gazt. *lugar*) izandako Donostiako *Igeldo* biztanle entitate bereziaren aurreneko aztarnak 12. gizaldikoak dira (ikus Salaberri & Zaldua 2019, 148-149. or.). Herritar izenez denaz bezainbatean, bi aldaera lekukotzen dira, *igeldoar* eta *igeldotar*.

- Idatzizko lagin zenbait:

1895. «**Igeldoar** bat zegon / Agerre-azpikuan / lorra erantsi diyote / etxera ezti-juan». Juan Jose Alkain Iruretagoiena (*Udarregi*), Usurbil¹ (1829-1895), (*apud* Zavala, 1966a, 28. or.).

1906. «iruritzen zait **igeldoarrak** / ondo serbitu nauela, / bestia ori etzait gertatu / oraindik beintzat orrela». Egile ezezaguna², (*apud* Zavala, 1979, 45. or.).

1911. «**igeldotarrak** garaitu degu / etsaiakiko auziya, / kontsolatzeko modukua da / onlako irabaziya»; «**Igeldotarrak** sartu gerade / betiko fede biziyan / bitorioso atera naian / etsaiakiko auziyan». Jose Agustin Lertxundi Alda (*Errikotxia*), Usurbil (1855-1932), (*apud* Zavala, 1966b, 55., 62. or.).

1999. «Iaz jokatu zen Euskal Herriko Txapelketa Nagusia Joxemari Olasagasti **igeldoarrak** irabazi zuen. 35 minutu eta 17 segundutan lortu zuen Olasagastik aurrean jarri zizkioten 12 enborrak erdibitzea». Maria Agirre (kazetaria), (Agirre, 1999).

2000. «... guk Nor Nork sailean *giñitun* ‘genituen’ bildu dugu Antiguan, baina lekukoaren arbaso **igeldoar**-usurbildarretan egon daiteke argia». Iñaki Camino (hizkuntzalaria), (Camino, 2000, 77. or.).

2013. «**Igeldoar** batzuk Zubietara etorri omen ziren errotara. Meriendatu omen zuten, eta ordaintzeko dirurik ez. Irinarekin pagatu omen zuten». Rufino Iraola (idazlea eta kazetaria), Zaldibia (1945-2019), (Iraola, 2013).

2016. «**Igeldoarrak** ondoan zitun beste bi aizkolari, Lawrence O’Toole 35 urteko australitarra bat, mutil bikaiña ala ere; eta bestea Iker Bizente 18 urteko otxagabitarra». Txomin Garmendia (bertsolaria), Berrobi (1943), (Garmendia, 2016).

2021. «Maiatzaren 28an iritsi zen Kutxa Bira Igeldora eta Itxas Aurre elkarteak prestatu zuen kutxan sartu beharreko mezua; hau da, **igeldoarren** ametsa adieraz-

1 Izatez aiarra, baina gaztea zela Usurbilera joan zen bizitzera familiarekin.

2 Usurbilgo gertaera.

ten duen mezua. Honakoa biltzen du mezu horrek: «Herri txiki bat gara Euskal Herri zabalean eta udalerrri izan nahi dugu Euskal Herri aske batean!», Egile ezezaguna (*apud* www.igeldo.eus).

- Ahozko testigantza batzuk:

2021. *Igeldoarra*³. Gabriela Salsamendi Amunarriz, Usurbil, (1927).

2021. *Igeldoarra*⁴. Victoriano Furundarena Begiristain, Usurbil, (1928).

2021. *Igeldotarra*⁵ [i.ɣél.do.ta.rà]. Maria Karmen Etxabe Erauskin, Zaldibia (1939).

2021. *Igeldoarra*⁶ (goitizenez: *astoak*). Jose Antonio Errazkin Balerdi, Igeldo, (1942).

2021. *Igeldoar*, *igeldoarrak* [i.ɣél.do.ar], [i.ɣél.do.a.rák]. Joxe Manuel Martiarena Lizarazu, Igeldo (1946).

2021. *Igeldoarrak*. Jabier Zabaleta Iraola (Orioko euskara teknikaria), Orio⁷ (1959).

2021. *Igeldoarra*⁸ (goitizenez: *astoak*). Pello Saizar Makatzaga, Lusarbe baserria, Orio (1963).

- Gipuzkoako beste hainbat erreferentzia

Badirudi Probintzian *-tar* (herskari ahoskabea duen) aldaera nagusitzen dela akabailan *-o* duten herri izenen artean: *antxotar* (Salaberri & Zaldua, 2019, 301. or.), *lazkaotar* (*ibid.*, 243. or.), *sangregoriotar* ([s̺aŋ.gré.ɣo.rjo.ta.rák]) (*ibid.*, 88. or.), *sanpedrotar* (*ibid.*, 302. or.) (*cfr.* 140. araua *s.v.* Altzo, Ezkio, Orio). Zernahi gisaz, 140. arauan adierazten denez, badira, antza, *-ar* duten bi ale, *itsasondoar* (*s.v.* Itsasondo) eta *itsasoar* (*s.v.* Itsaso).

3 Usurbilgo Joxe Jabier Furundarena Salsamendik (Onomastika batzordearen laguntzailerak) eskuraturiko ahozko testigantza.

4 Furundarenak emandako lagina.

5 Berriemailea behartuta lorturiko forma, esan nahi baita arrotza zaiola.

6 Furundarenak biltzen duenez, *igeldotarra* aldaera ezagutzen du eta noizean behin erabili ere bai, baina Igeldoko berriemaileak garbi du usadiozko forma *igeldoarra* dela bertakoen artean.

7 Aitona Igeldokoa zuen.

8 Furundarenaren hitzetan, *igeldotarra* aldaera ez zaio ezezaguna egiten informatzaileari eta, aitortzen duenez, aldian behin baliatzen du, baina argi dauka Orion tradiziozko forma *igeldoarra* dela.

Esan beharrekoak esan ondoren, proposamena da *Euskaltzaindiaren Hiztegian igeldoar* sartzea, eta ez besterik (*igeldotar*), Donostiako *Igeldo* biztanle entitate bereziko herritarren izena adierazteko.

4. *Itziartar*

Behinola elizatea izandako Debako *Itziar* biztanle entitate bereziaren lehenbiziko aipamenak 12. mendekoak dira. *Itziartar* ([i.ʃi.ar.tá.rak]) herritar izena jasota dago⁹ (ikus Salaberri & Zaldua, 2019, 141-142. or.) eta ez da ezagutzen beste aldaerarik, hau da, ez dago irudimenezko **itziardar* formaren aztarnarik.

Halaber, Gipuzkoan badaude, besteak beste, *bolibartar* [go.li.ar.ta.rák] (*ibid.*, 174. or.), *eibartar* [e̞.βár.ta.rák] (*ibid.*, 152 or.) gentilizioak (*cf.* 140. araua s.v. Albiztur, Angiozar, Astigarraga, Elgoibar, Gesalibar, Ibarra).

Horrenbestez, proposamena da *Euskaltzaindiaren Hiztegian itziartar* barneratzea Debako *Itziar* biztanle entitate bereziko herritarrak izendatzeko.

5. Irizpena

Miriam Urkia andereak egindako galderari erantzunez, gomendioa da Urrestilla, *Igeldo* eta *Itziar* biztanleria entitate berezietako herritarrak izendatzeko *urrestildar*, *igeldoar* eta *itziartar* formak erabiltzea *Euskaltzaindiaren Hiztegian*.

Hernanin, 2021eko irailaren 6an

9 Josu Larrañaga Arrieta Onomastika batzordekideak berretsitako informazioa.

6. Erreferentziak

- Agirre, M. (1999). «Aizkora, gogorra bezain ikusgarria», *Euskoneus* 45.
- Albeniz, L. (2003). *Nere berriketa eta aitortza*. Donostia: Auspoa.
- Camino, I. (2000). «Abiaburu bat Donostiako euskera aztertze», in K. Zuazo (koord.), *Dialektologia gaiak* (53-84. or.). Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Euskaltzaindia (2021). Gipuzkoako herri izendegia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0140.pdf helbidetik eskuratua.
- Euskaltzaindia (2021). Nafarroako udal izendegia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0155.pdf helbidetik eskuratua.
- Euskaltzaindia (2021). Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak. Euskaltzaindiaren gomendioa. http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0178.pdf helbidetik eskuratua.
- Euskaltzaindia (2021). Jatorria adieraztea: *-ar, -tar, -dar, -oztar*. In *Jagonet galde-erantzunak*, https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_jagonet&task=galdera&Itemid=423&lang=eu&id=486 helbidetik eskuratua.
- Euskaltzaindia (2021). *Euskal Onomastikaren Datutegia (EODA)*. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ecoeoda&task=bilaketaPortada&Itemid=472&lang=eu helbidetik eskuratua.
- Euskaltzaindia (2021). *Orotariko Euskal Hiztegia*. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ohberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu helbidetik eskuratua.
- Galé, P. (koord.). *Toponimia arautzeko irizpideak*. Euskaltzaindia. Lan argitaragarria.
- Garmendia, Tx. (2016). «Jakín miñez», *Noticias de Navarra* 2016/02/07.
- Gorrotxategi, M. (2000). «Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak = Entidades de Población de la Comunidad Autónoma Vasca», *Euskera* 45 (3): 1183-1252.
- Gorrotxategi, M. & Salaberri, P. (2000). «Toponimia txikia arautzeko irizpideak», *Euskera* 45 (3): 273-314.

Igeldoko Herri Kontseilua (2021). *Igeldo herria*. <http://www.igeldo.eus> helbidetik eskuratua.

Iraola, R. (2013). Bertsolaritza klasikoaren antologia partziala. <https://rufiraola.wordpress.com> helbidetik eskuratua.

Iztueta, J.I. (1847). *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia*. Donostia: I.R. Barojaren moldiztegia.

Salaberri, P. & Zaldúa, L.M. (2019). *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Zavala, A. (1966a). *Udarregi bertsolaria*. Tolosa: Auspoa.

Zavala, A. (1966b). *Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari*. Tolosa: Auspoa.

Zavala, A. (1979). *Nekazariak bai miseriak*. Tolosa: Auspoa.